



Arartekoaren 2018R-2877-17 Ebazpena, 2018ko maiatzaren 30ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berrazter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezarri zion ebazpena.

Aurrekariak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra den herritar batek Arartekora jo zuen eta erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen, Lanbideren ebazpen batekin ados ez zegoela-eta. Horren bidez, erakunde horrek ezarri zuen prestazioak bidegabe jaso zituela-eta 5.000 € itzuli behar zituela interesdunak.
2. 2017ko urriaren 9an Lanbidek ebatzi zuen kexagileak 5.000 euro itzultzeko betebeharra zuela. Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenak hizpide duen berrikusitako aldia hau da: *"2014ko abuztuaren 1etik 2014ko abuztuaren 31ra"*. Aldi berean, honako hau da han adierazitako arrazoa:
 - *"Beste arrazoi batzuk EPO"* (sic)
3. Dirudienez, oker bat izan zen azpierrentamendu-agiria transkribatzean, eta adierazi zen azpierrentariak 400 euro ordaintzen zituela. Horren ondorioz, Lanbidek jo zuen, azpierrentamendu-kontratua sinatu zenetik (2012ko abenduaren 31), kexagileak ezin zuela egiaztatu etxebizitza-gasturik ordaindu izana.
4. Kexagilea ez zetorren bat ezarritakoarekin, eta, beraz, argitu zuen errentamenduaren zenbatekoa, osotara, 400 euro zela. Horri lotuta, berriz ere esan zuen logela bat eman zuela azpierrentan, 200 euroan, etxebizitzaren jabearen baimenarekin. Horrez gain, azaldu zuen azpierrentariak, hilero, 200 euro ordaintzen zizkiola bere kontu-bankuan, eta berak, errentaren zenbateko osoa biltzean, behingoan egiten ziola ordainketa ondasun higiezinaren titularrari. Egitate hori egiaztatze aldera, 2013ko irailetik 2014ko abuztura arteko banku-mugimenduak aurkeztu zituen.

Halaber, etxebizitzako gastuen ordainagiriak sei hilero eman izanaren ziurtagiriak aurkeztu zituen.

Gainera, zenbaitetan aurkeztu zuen Lanbideren bulegoan etxebizitzaren jabeak emandako azpierrentarako baimena, bai eta haren telefono-zenbakia ere, Lanbidek informazioa egiaztatu zezan.

Aitzitik, Lanbidek jo zuen kexagilearen etxebizitzako gastuak azpierrentariak estali zituela 2012ko abenduaren 31tik aurrera, ondorioztatu zuelako hark ordaintzen zuela errentamendu-kontratuari zegokion zenbateko osoa, 400 euro, alegia.





Nolanahi ere, kexagileak, hasieran, ez zekien zergatik eskatu zion Lanbidek 5.000 euro itzultzeko.

5. Azaldutakoa ikusita, 2018ko urtarrilaren 5ean, Arartekoak lankidetzak eskatera bat bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari. Horren bidez, eskatu genion azaldu zezan zergatik adierazi zuen Lanbidek interesdunak 5.000 euro itzuli behar zituela.

Besteak beste, hau jakinarazteko eskatu genion:

- *“Ea zergatik adierazi duen Lanbidek interesdunak 5.000 euro itzuli behar dituela prestazioak bidegabe jaso zituela-eta; izan ere, 2014ko abuztuaren 1etik 2014ko abuztuaren 31ra arteko aldia erreklamatu dio erakunde horrek.*
- *Ea zergatik aipatu duen Lanbidek, ebazpenean emandako arrazoietan, 2012ko abenduaren 31tik aurrerako aldia.*
- *Ea zer iritzi duzun kexagileak aurkeztutako banku-mugimenduen inguruan. Horrez gain, jakinaraz diezaguzu, zure ustez, interesdunak behar bezala egiaztatu ote duen denbora honetan guztian etxebizitzarako prestazio osagarria bizilekuaren gastuak ordaintzeko erabili izana.”*

Horrez gain, Arartekoak alde aurretiko zenbait gogoeta helarazi zizkion sail horri etxebizitzako gastuak jakinarazteko moduei lotuta; ez errepikatzearen, jarraian jasoko ditugu.

6. Arartekoak ez zuen erantzunik jaso informazio-eskatera horri lotuta, eta, hortaz, 2018ko otsailaren 6an sailari errekerimendu bat helarazi eta berariaz erantzun behar zuela gogorarazi zion.
7. Horri erantzunez, 2018ko otsailaren 22an, Lanbideko zuzendari nagusiaren idazki bat jaso genuen erakunde honen erregistroan. Horren bitartez, jakinarazi zigun kexagileari, prestazioak bidegabe jaso zituela-eta, 5.000 euro itzularazteko erabakiari eutsiko ziola, honako hau egiaztatu zuelako:

- *“(…) Kexagileak aurkeztutako dokumentaziotik bertatik (azpierrementamenduko kontratua) **ondorioztatzen da** kontzeptu horregatik aurreikusitako kopuruak (400 €) osorik estaltzen duela kexagileak errentamendu gisa ordaindutakoa.”¹*

Azken batean, Lanbideko zuzendari nagusiak berriz ere adierazi zuen aurkeztutako azpierrementamendu-kontratuan azpierrementu 400 euro zirela adierazteak (zenbateko hori ez zen zuzena) zekarrela kexagileak, 2012ko abenduaren 31tik aurrera, etxebizitzak-premia aseta zuela jotzea.

¹ Azpimarra Arartekoarena da.



8. Beraz, uste dugunez beharrezko egitate- eta zuzenbide- elementuak ditugula, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. 2/2010 Dekretuaren (urtarrilaren 12koa, Etxebizitzaren Prestazio Osagarriari buruzkoa) 4. artikulua honako hau ezartzen du:

- *“etxebizitzarekin loturiko premiatzat hartuko dira etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren alokairu-gastuak, edozein modalitatetan, hots, errentamendua, azpierrentamendua, baterako alokairua, ostatu hartzea eta gelen alokairua.”*

Titularrei dagokienez, 2/2010 Dekretuaren 5.1.b) artikulua hau dio:

“Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izan daitezke etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak:

(...)

b) Titularrak 4. artikuluan bilduriko ohiko etxebizitza edo bizitokiko aldizkako gastuei erantzun behar izatea, eta ohiko helbidea duen udalerriko udal gizarte-zerbitzuek egiaztatu beharko dute premia hori.”²

Alde horretatik, 2/2010 Dekretuaren 7. artikulua ezartzen du etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrek, besteak beste, betebeharrak hau dutela:

- *“a) Prestazioa zein helburutarako eman den, horrexetarako baino ez erabiltzea.”*
2. Lanbideko zuzendari nagusiak adierazi du herritar horrek 5.000 euro itzultzeko betebeharrak duela, ondorioztatu baitu kexagileak etxebizitza-premiak aseta izan zituela azpierrentamendu-kontratua sinatu zenetik. Horri dagokionez, Lanbideko azaldu zuen, azpierrentariak errenta osoa (400 euro) ordaintzen zuenez, kexagileak ezin zuela egiaztatu ostatuari zegozkion aldizkako gastuei aurre egin behar izan zienik.
- Azaldutakoa gorabehera, Arartekoa ez dator bat Lanbideko zuzendari nagusiak haren erantzunean emandako argudiaketarekin, jasoko ditugun arrazoiak direla-eta.
3. Lanbideko zuzendari nagusiak, interesdunak prestazioak bidegabe jasotzeagatik 5.000 euro itzuli behar dituela ezarri duen ebazpenean, erreklamaturako prestazioei

² 3/2011 Legea (urriaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoa) eta 4/2011 Legea (azaroaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Legea aldatzekoa) onartzearen ondorioz, “udalerriko udaleko gizarte-zerbitzuak” dioen lekuan “Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua” ulertuko da horren ordez.



dagokien aldia murrizten du "2014ko abuztuaren 1etik 2014ko abuztuaren 31ra". Hala ere, Lanbideren iritziz, interesdunak zenbateko hori itzuli behar du, erakunde horrek uste baitu ez duela justifikatu etxebizitzako gastuak izan dituenik azpierrentamendu-kontratua sinatu zenetik (2012ko abendua), eta, beraz, ez zegokiola etxebizitzarako prestazio osagarria kobratzea.

Hortaz, berez, 2012ko abenduaren 31tik jasotako zenbatekoak erreklamatu dizkio Lanbidek.

Kontu horri dagokionez, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari bidalitako lankidetzaren eskatu zion adierazteko zer iruditzen zitzaion zenbatekoen zati bat erreklamatzeko aukerarik ez izatea preskripzioaren figura juridikoa tartean zelako. Izan ere, egiaztatu genuen 4 urte baino gehiago igaro zirela azaldutako egitateak jazo zirenetik bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatzeko prozedura abiarazi arte.

Horri erantzute aldera, hauxe jakinarazi dio Lanbideko zuzendari nagusiak Arartekoari:

Zure idazkiaren hasierako azalpenean adierazten denez, argi geratzen da honako hau: DSBEn prestazioa BERRITZEKO aztertutako epealdia hasieran 2014/08/1etik 2014/08/31ra izan zen, baina hori ez da eragozpena EPOrengatik ordainketak prestazio horren indarraldi OSOAn egokiak izan ziren ala ez egiaztatzeko. (...) Eta hala azaltzen zaio argi eta garbi interesdunari, zera esanez: "Beste arrazoi batzuk – EPO. Gastua estalita edukitzea 2012/12/31tik; hain zuzen ere, data hartan, azpierrentamendua egin zion, 400 euroan (errentamenduaren zenbatekoa).

Kexagileak bere alegazioetan ez du inolako arrazoirik azaltzen erreklamatu zaion bidegabeko kobrantzaren PRESKRIPZIORAKO eta LANBIDEn gai horren eskumena duen sailak ez du arrazoirik ikusten horretarako."

4. Lanbidek adierazi ez bezala, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak zati batean aldatutako 18/2008 Legeko (abenduari 23koa, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 56. artikulua honako hau ezartzen du:

- *"Jaso behar ez zirela jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharrari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubideei eta obligazioei aplikatu beharreko araudiaren arabera izango da betebeharraren preskripzioa."*

Horri lotuta, 1/1997 Legegintzako Dekretuko (azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena) 44. artikulua hau zehazten du preskripzioari dagokionez:

- *"1. Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideak preskribagarriak dira. Preskripzio-epeak zehazteko, bete beharrekoak izango dira eskubide*





horietako bakoitzari zuzen-zuzenean edo zeharka espezifikoki ezar dakizkiokeen xedapenak.

2. Aurreko lerroaldean aipatzen den xedapenik ez badago, lau urteren buruan preskribatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta bere erakunde autonomiadunek zenbait arlotan duten eskubidea. Hona arloak:

a) Eskubide publikoak aitortzea eta kitatzea bere alde, eskubideaz baliatu ahal izan zen egunetik. Baldin eta finkatu bada aitortpen edo kitapen horretarako ezinbestekoa dela aipatutako erakundeei egindako adierazpena, preskripzio-epea ez da zenbatzen hasiko harik eta adierazpen hori, eskatutako baldintza guztiak betez, egin arte.

b) Aitortutako edo kitatutako kreditu publikoak kobratzea, jakinarazpena eraginkorra egin den egunetik, edo, egun hori derrigorrezkoa ez bada, bere epe-mugatik aurrera.”³

5. Espedientean jasotako dokumentazioari erreparatuta, Arartekoak egiaztatu du Lanbidek bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko prozedura abiarazi zuela 2017ko maiatzaren 25ean, eta ez dugu hauteman epe hori eten izana justifikatzeko arrazoirik.

Azaldutakoa dela eta, Arartekoaren iritziz, Lanbide, 2012ko abendutik bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatzean, eskatzen ari da dagoeneko preskribatuta dauden zenbatekoak itzultzeko, egiaztatu baita 4 urte baino gehiago igaro direla horiek sortu zirenetik itzultzeko eskatu den arte.

Zehazki, ezin zaizkio erreklamatu 2012ko abendutik 2013ko maiatzera arte jasotako zenbatekoak.

6. Gainera, kontu juridiko-materialei dagokienez, Arartekoak ez du uste azpierrentamendu-kontratuaren idazketan egindako okerra dela-eta, halaberrez jo behar denik kexagileak ez duela etxebizitza-premia justifikatu eta jasotako prestazioa emandako helbururako ez beste baterako erabili duela.

Izan ere, Lanbidek hau adierazi dio Arartekoari: *“Kexagileak aurkeztutako dokumentaziotik bertatik (azpierrentamenduko kontratua) **ondorioztatzen da kontzeptu horregatik aurreikusitako kopuruak (400 €) osorik estaltzen duela kexagileak errentamendu gisa ordaindutakoa.”**⁴*

Azken batean, *“iuris et de iure”* froga-balioa eman dio azpierrentamendu-kontratuaren edukiari, eta ez ditu onartu kexagileak aurkeztutako beste froga

³ Azpimarra Arartekoarena da.

⁴ Azpimarra Arartekoarena da.



batzuk azpierrentamendu-kontratuan –oker baten ondorioz– adierazitakoa indargabetzeko.

7. Horri dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 77. artikulua honako hau ezartzen du frogabideei lotuta:

1. Zuzenbidean onargarri den edozein frogabidez egiazta daitezke prozedura erabakitzeko garrantzizko diren egitateak. Frogabideak balioesteko irizpideak Prozedura Zibilar buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean aurreikusitakoak dira.

2. Administrazioak ez baditu egiazkotzat jotzen interesdunek alegatutako egitateak, edo prozeduraren izaerak hala eskatzen badu, prozeduraren instrukzio-egileak frogaldi bat hastea erabakiko du, gehienez hogeita hamar egunekoa eta gutxienez hamarrekoa, egoki deritzon froga guztiak egin daitezzen. (...)⁵

Hizpide duguna bezalako kasuetan, informazio kontraesankorra baldin bazegoen, Lanbidek frogatzeko prozedura abiarazi beharko zukeen, kexagileak azaldutako egitateak egiazkoak ziren egiaztatze aldera, bidegabe jasotako prestazioak erreklamatzeko prozedura abiarazi aurretik.

8. Espedientean jasotako dokumentazioa aztertuta, hain zuzen ere kexagileak aurkeztutako bankuko kontu-laburpenei erreparatuta, Arartekoak egiaztatu du azpierrentariak hileroko egindako 200 euroko sarrera ageri dela horietan.

Gainera, Arartekoak egiaztatu du kexagileak behin baino gehiagotan eman duela higiezinaren titularraren telefono-zenbakia, emandako informazioa egiazta zedin. Are, kexagileak proposatu du Lanbidek jabeari bulegora joateko eska zekion, zegozkion azalpenak emateko.

Adierazitakoa gorabehera, Lanbidek ez du kontu horiei buruzko adierazpenik egin. Halaber, Arartekoak dakiela, ez dira behar adina ikuskapen-jarduketa burutu argitzeko azpierrentamendu-kontratuan jasotako zenbatekoa (400 euro) oker zegoen.

Hori dela tarteko, Arartekoaren ustez, erantzunean ateratako ondorio hutsa ez da nahikoa kexagileari 5.000 euro erreklamatzeko.

9. Azken batean, Arartekoaren iritziz, Lanbidek ardura handiagoz jokatu beharko zukeen kexagileak azaldutako gertaerak –dokumentuak erakunde horren bulegoan aurkeztu ziren– egiaztatzean. Gauzak horrela, kontratuan jasotako zenbatekoari buruzko aipamena banku-kontuetan egindako sarrerekin kontrastatuz, jakin liteke

⁵ Azpimarra Arartekoarena da.



zein diren erabaki hori hartzeko benetako arrazoiak, hura dedukzio hutsean oinarritu beharrean.

Arartekoaren ustez, 5.000 euro erreklamatu izanari lotuta kexagileak adierazitako zalantzak argitu beharko zitezkeen frogatzeko prozedura bat abiarazita, bidegabe jasotako prestazioak erreklamatzeko prozedura abiarazi aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 77. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

10. Nolanahi ere, Arartekoak egiaztatu du Lanbidek ez duela jaso nola kalkulatu duen erreklamaturako zenbatekoa, ez bidegabe jasotako prestazioak erreklamatzeko prozedura abiaraztean, ez eta ondorengo ebazpenean ere.

Horri lotuta, Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 3. Epaitegiak, otsailaren 6ko 46/2018 Epaian, Lanbideren ohiko jokaera baten berri eman du. Zehazki, honako hau aipatzen du:

- *"Se viene observando de un tiempo a esta parte como Lanbide reclama cantidades como ingresos indebidos, cuyo origen se encuentra en una resolución o una causa que dista prácticamente el tiempo de prescripción de cuatro años previsto para la recuperación de ingresos indebidos.*

La distancia temporal entre el origen del reintegro y la incoación de este (...) exige una mayor precisión en la exposición de las operaciones realizadas para el cálculo de la cantidad a reintegrar, si no en la resolución recurrida, sí que al menos consten en el expediente.

Y la facilidad probatoria para Lanbide es total, frente a la mayor dificultad que tiene el administrado para la verificación de los cálculos que permitan conocer con exactitud de la cantidad que se les reclama, contenido esencial en definitiva de la resolución de reintegro, máxime cuando hunde sus raíces en una resolución previa de la que trae causa y que resulta en la mayoría de supuestos inatacable. Esto hace que el contenido esencial de la resolución de reintegro sea la cantidad y por ello es necesario conocer su origen."

Azaldutakoa ikusita, Arartekoak uste du itzuli beharreko zenbatekoak kalkulatzeko burututako eragiketen azalpen laburra eman beharko zukeela Lanbidek, han erreklamaturako zenbatekoak eta hilabeteak zehaztuz.

11. Laburbilduz, Arartekoak pentsatzen du Lanbidek ez duela behar bezala bete aitortua duen ikuskatzeko ahala. Horrenbestez, Arartekoaren ustez, azpierrentamendu-kontratu baten interpretazio hutsak –hura kontrastatu ere egin gabe– ez du halabeharrez ekarri behar prestazioak bidegabe jaso zirela-eta zorra sortu dela jotzen duen ebazpena ematea. Horregatik, horrelako erabaki garrantzitsua hartu aurretik, Lanbidek kexagileak igorritako informazioa – aurkeztutako bankuko kontu-laburpenak– kontrastatu beharko zukeen eta, hala





bazegokion, onartu beharko zukeen higiezinaren jabea Lanbideren bulegoan agertzea.

Horrez gain, Lanbidek zorraren jatorriari buruzko azalpena eman beharko ziokeen kexagileari, helarazitako idazkien bitartez, erreklamatutako hilabeteak berariaz zehaztuz.

Izan ere, egiaztatu da orain erreklamatu dizkioten hilerokoetako batzuk preskribatu direla, eta, beraz, Lanbidek ezin dio eskatu horiek itzultzeko.

12. Azken batean, aztergai dugun kexa-espeditentea izapidetu ondoren, Arartekoak egiaztatu du kexagileak etxebizitzarako prestazio osagarria zein helburutarako eman zioten, horrexetarako erabili zuela, eta behar bezala justifikatu zuela etxebizitza-premia zuela, ordainagiriaren bidez aldizkako etxebizitzako gastuak izan zituela egiaztatuz.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Arartekoak honako gomendio hau egin nahi du:

GOMENDIOA

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen dio berrazter dezala kexagileak 5.000 euro itzuli behar dituela adierazi duen ebazpena, Lanbideko zuzendari nagusiarena. Izan ere, uste dugu azpierrentamendu-kontratuaren prezioa zalantzan jartzen duten beste froga batzuk daudela, eta horiek ez direla aintzat hartu.

Nolanahi ere, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari eskatzen dio berrikus ditzala erreklamatutako zenbatekoak, behar bezala egiaztatu baita erreklamatutako hilerokoetako batzuk preskribatuta zeudela prestazioak erreklamatzeko prozedura abiarazi zenerako.

Azkenik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gogorarazten dio bere betebeharra dela zehaztea zer zenbateko erreklamatzeko zaizkion interesdunari eta zerk eragin duen zorra.

